



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## 30ALKATEAREN DEKRETUA, TXAKURRAK PARKE ETA LORATEGI PUBLIKOETAN ASKE IBILTZEKO EREMUEI BURUZKOA

2014ko urtarrilaren 4an jarri zen indarrean Animaliak Eduki eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzaren aldakuntza.

Ordenantza horren 11. artikuluan —"Txakurrak parke eta lorategi publikoetan askatzea"—, honela dago jasota:

*"1.- Hiriko bide, parke eta leku publikoetan, Udalak baimendutako lekuetan izan ezik, animaliak kontrolpean eraman beharko dira, zer ezaugarri dituzten, horren arabera egoki den —eta gehienez bi metroko luzera izan beharko duen— katearekin, uhalarekin edo beste sistemaren batekin lotuta.*

*2.- Alkatearen dekretuen bitartez zehaztuko dira arriskutsutzat jotzen ez diren txakurrak aske ibili ahal izango diren eremu mugatuak, baita horretarako ordutegiak ere, behar izanez gero.*

*Behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute eremu horiek.*

*3.- Nolanahi ere, txakurren jabe edo edukizailleek haien gaineko kontrola eduki beharko dute une oro, pertsoneri eta gainerako animaliei enbarazu eta kalterik eragin ez diezaieten, ezta ondasun edo instalazio publikoak hondatu ere. Hori dela eta, begien bistan eduki beharko dute txakurra, behar izanez gero esku hartu ahal izateko moduko distantzian."*

Horrenbestez, ikusirik Animaliak Eduki eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzaren 11. artikuluko 2. atala, honako hau

### **XEDATU DUT:**

Lehena.- Berdeguneetan bakarrik egon ahal izango dira aske txakurrak —arriskutsu izan daitezkeen txakurrak izan ezik, horiek beti joan beharko baitute lotuta—, hauetan izan ezik:



- Katedraleko parkea,
- Unibertsitate-campusoko lorategiak (Maria de Maeztu lorategia salbu),
- Prado parkea,
- Florida parkea (Uraren Ezkutuko Lorategia barne),
- Natura 2000 Sarean sartuta dauden eremuak: Salburua, Zadorra, Arabako Lautadako harizti-irlak eta Gasteizko Goi Mendiak.

Bigarrenena.- Goian adierazitako txakurrek ezingo dute aske egon baimendutako eremuetan —animalien ongizateagatik ere— bertan jai edo ekitaldiak ospatu bitartean.

Hirugarrena.- Aurreko salbuespenak ez zaizkie aplikatuko laguntza-txakurrei, Eusko Legebiltzarraren Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legearen ildotik.

Laugarrena.- Eratzun Berdean —Salburua, Zabalzana, Olarizu, Armentia eta Zadorra—, espezie basatiei ez eragite aldera, txakurrek, oro har, lotuta joan beharko dute, salbu eta berariaz seinaleztatutako lekuetan —erantsitako planoan zehazten dira—.

Bosgarrena.- Debekatuta dago animaliei bide publikoan edateko dauden ur-iturrietatik zuzenean edaten uztea, baita animaliak haur-jolasetarako esparruetan —zabuak, txirristak eta abar— ibiltzea eta egotea ere.

Seigarrena.- Alkatearen dekretua dela medio aldatu ahal izango dira txakurrak aske ibili ahal izateko lekuak, modu arrazoituan.



Zazpigarrena.- Udalerriko nekazaritza-eremuko ingurune ez urbanoetan txakurrak — arriskutsu izan daitezkeenak izan ezik— aske ibili ahal izango dira, batez ere mendibide eta nekazaritza-bideetan, landutako soroak errespetatuz, baldin eta kontrolatuta badaude, kontrakoa adierazten duen seinalerik ez badago eta aplikatzekoak diren sektore-araudietan —ehiza, babes-eremuak, fauna-erreserba eta abar— galarazita ez badago.


Hiri-inguruneetan, dekretu honetan arautzen denaz gain, Animaliak Eduki eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzan xedatutakoa ere aintzat hartu beharko da.

Zortzigarrena.- Dataren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau, Udalaren web-gunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 9an.

Alkate lehendakaria,

Gorka Urtaran Agirre.



**Leyenda**

- Zonas verdes en las que los perros deben ir atados
- Zonas del Anillo Verde en las que los perros pueden ir sueltos